

ZULOKO-IBARRETA. Ekologisten ordezkariak gaur batzartuko dira, Madrilén, Kostalde Saileko arduradunakaz

Iñigo Bilbao

Ertzaintzak Ezpitsua taldeko sei kide atxilotu zituan, atzo goizean, Zuloiko-Ibarrako hezegunea lehertzeko beharrak galerazoten ahalegindu ziralako. Martitzenean, beste zortzi ekologista atxilotu zituen. Euren buruak kamioien aurrean ipintez gainera, Ezpitsua taldeko kideek udal agintarien kontrako salaketak ipini eben, atzo goizean, Barakaldoko epaitegian.

Istiluak barikuan hasi ziran. Egun horretan jakin zan, martitzena ezker, dozenaka kamioi eta hainbat indusmakina hezegunean sartu zirana. Ekologisten ustetan, beharrak ez dira legezkoak, eta, horregaitik, obrak bertan behera itxi behar dirala uste dabe. Horixe da epaileari, Espainiako Kostalde Sailari, eta arazo horretan eragina daukien erakunde guztiei eskatu deusieena: hezegunea eta animalientzat beluegi izan baino lehenago, obrak geldituazotea.

«Nahiz eta gaizkile lez salatu; nahiz eta atxilotu, jipoitu eta gartzelan sartu, ez gaitue kikilduko, eta hezegunean izango gaitue egunero-egunero, herri honen ondare natural horreek babesten». Javier Vazquez taldeko bozeroaleak berba gogorak erabili zituan, atzo eguerdian, udal agintarien portaerea salatuzko: «Paduran egiten dagozan obrak ingurumenaren kontrako delitutzat hartu leitezke; eta hori larria bada, are larriagoa da ikustea zelan ondare naturalak babestu behar dituen erakundeek begiak zarratzen dituen hondamendi horren aurrean», salatu eban Vazquezek.

Madrilén izango dira gaur

Ezpitsua taldeko kide batzuk hezegunerako bidean, euren gorputzak lurrera bota eta barrikadea egiten daben bitartean,

Ertzaintzak Ezpitsua taldeko beste sei kide atxilotu zituan atzo goizean

Bezperan zortzi ekologista atxilotu zituen, hezegunea lehertzeko beharrak galerazoteagaitik

JAVIER VAZQUEZ

Ezpitsua taldeko bozeroalea

«Baten bat atxilotu behar badabe, eroan daiezala gorbata baten atzean ezkutetan diran benetako gaizkile horreek»

«Guk ez doguz eskubide horreek aldarrikatzen, guk betearazo egiten doguz, eta horregaitik gara gaizkileak»

beste batzuk Madrilén izango dira gaur. Bertan, Espainiako Kostalde Saileko arduradunak batzartuko dira, eta padurako lurren sailkapen beharrak ahalik eta lasterren hasi daitezala eskatuko deusiee.

Arduratuta dagoz, uste dabelako neurriak laster hartzen ez badira, Zuloiko-Ibarran ez dala egongo zer aztertu. Txiki-zioa galerazoteko egin behar daben ahalegina hain da handia, ze ekologistek laguntzea eskatu deusiee Barakaldoko herritarrei. «Guztiona dan ondare historiko naturala jagotea danon ardurea izan behar dala uste dogu», nabarmendu eben.

Ez da hori izan egin daben dei bakarra. Herritarrei ez eze, bertan diran polizia indarrei be dei berezia egin eutsieen ekologistek: «Euren esku hartzea onartzen dogu, borroka horretan



JOSU ETXEBARRIOSTE

EH eta EBko zinegotziek ekologisten salaketak babestu zituen.

sartu ginanean bagenkian-eta zein zan arriskua. Baina gehiegikeria gehiagorik ez deusegu onartuko». Vazquezek eta beste kide batzuk martitzenean atxilotutakoek «tratu txarrak» jasan zituela salatu eben.

«Baten bat atxilotu behar badabe, eroan daiezala komisaldegira gorbata baten atzean Udaletxe honetan ezkutetan diran benetako gaizkileak», generatu eban Vazquezek.

Hurrengo deia epaileari egingakoa izan zan. Gogoratu eutsien, Gasteizko Uren Zuzendaritzaren eta Madrilgo Kostalde Sailaren ustetan, badagozala arrazoi sendoak hezegunea babestu beharreko eremutzat hartzeko, eta, beraz, euren salaketari ahalik eta lasterren erantzuteko eskatu eutsien.

Ibarretxeri deia

Azken deia Juan Jose Ibarretxeri egingakoa izan zan. Izan be, Barakaldon alkarrizketea baztertu, eta obrak inposatzen dagozan politikoei —horreen artean EAJ-EAko zinegotziak— bidea zein dan erakusteko eskatu deusie Lehendakariari. Ez hori bakarrik. Ingurumena Giza Eskubide izateko ekimenagaz Ibarretxek bat egin ebalu gogoratuz, eskubideak beteteko dirala, eta ez «tiradera baten gordeteko» esan eutsien lehendakariari. «Guk ez doguz eskubide horreek aldarrikatzen, guk betearazo egiten doguz, eta horregaitik gaizkile lez tratatzen gaitue», salatu eben.

EMAIOK HORIARI

Eta latarekin batera, brikak, enbaseak eta plastikozko botilak, eta, oro har, kartoizkoak eta beirazkoak ez diren enbaseak.

Horiek dira, eta ez beste ezer, edukiontzi horira bota behar dituzunak. Bereiztu etxean gainerako zaborretatik.

Gainontzeko zaborrak, bakoitza berde edukiontzi utzi.

Birzikla ezazu edukiontzi horia erabiliz.

Argibideak, telefono honetan: 94 447 50 56

Enbaseak, edukiontzi horira

ECOEMBES

BILBOko UDALA AYT. DE BILBAO

Argi eta Garbi • Disfrutalo limpio